



**Berrobiko Eskola**

943 68 32 14  
012032aa@gmail.com

# **BERROBIKO**

# **ESKOLAKO**

# **IRAKURKETA PLANA**

2019-20 ikasturtea

## **AURKIBIDEA**

1. TESTUINGURUA
2. IKASTETXEAREN DIAGNOSTIKOA
3. HELBURUAK
4. JARDUERAK
5. DENBORA EPEAK ETA ARDURADUNAK
6. EGINDAKO JARDUEREN EBALUAZIOA

# 1. TESTUINGURUA

Berrobiko Eskola, eskola publiko eta euskalduna eta herrian dagoen bakarra da. Herri txiki batean kokatuta dago, landa eta natura inguruan, euskara eta euskal kulturaren errota.

2 urtetik 12 urte bitarteko ikasleak hartzen ditu eskola honek, eta gela berean zenbait adineko ikasleak daude. Horregatik, elkarreragina eta lankidetzaren modu naturalean ematen dira eta aniztasun honetan harremanak aberastu egiten dira.

Gure eskolan gurasoen inplikazioa handia da: haien ezagutzak konpartitzeko, gaien inguruko materialak eskolara ekartzeko, zenbait jardueretan parte hartzeko ... eta irakasleen inplikazioa ere handia da pedagogia berrikuntza lanean ari garelako.

Irakurketa prozesuan ere ezaugarri hauek guztiak baliagarri egiten zaizkigu eta aprobetxatu egiten ditugu eguneroko jardueretan.

Irakurtzea testu bat interpretatzea da, hizkuntza idatzia ulertzeko egiten dugun prozesua, hain zuzen ere. Horretarako, testu mota eta baliabide desberdinak erabiltzen ditugu. Gainera, prozesu interaktiboa da eta irakurlearen baldintzek (irakurlearen helburuak, testuaren mamia, irakurlearen aurre ezagutzak, prozesua non eta zein egoeratan gertatzen den ...) eragina dute interakzio horretan.

Plan hau ikasleen irakurketa konpetentzia garatzeko ahaleginean diseinatu da. Horregatik, antzemandako beharren egokitzapena etengabekoa izan behar du ikaskuntza prozesu guztietan eta baita irakurketan ere.

## 2. IKASTETXEAREN DIAGNOSTIKOA

Irakurketaren inguruan ikastetxeak egin duen ibilbidea eta hartutako akordioak aztertuta, autodiagnostikoa egin dugu gure ikastetxeak dituen premiei erantzuteko.

Ikastetxearen diagnostikoa egiteko hainbat eremuei egin diegu erreferentzia.

- 1. Ikasteko irakurri :** Ikasteko irakurketari laguntzeko gogoetak egiten hasi gara, baina ez dugu erabakirik hartu.  
Liburutegia sarritan erabiltzen da ikasteko jarduerak gauzatzeko baina modu ez sistematizatuan eta irakasleok koordinatu gabe.
- 2. Irakurtzen ikasi :** Irakurketa-idazketa bultzatzeko erabaki batzuk hartu eta abiarazi ditugu baina ez era koordinatuan denon artean adostuta. Liburutegia sarritan erabiltzen da irakurketa-idazketa jarduerak gauzatzeko baina ez modu sistematizatuan eta irakasleok koordinatu gabe.
- 3. Irakurtzeko zaletasuna:** Irakurzaletasuna bultzatzeko erabaki batzuk hartu eta martxan jarri dira baina ez modu sistematizatuan ezta koordinatuan ere.  
Liburutegia sarritan erabiltzen da irakurtzeko zaletasunari lotutako jarduerak garatzeko baina modu ez sistematizatuan eta ez koordinatuan.
- 4. Familien parte hartzea:** Ikasturte hasierako bileretan familiei gomendioak ematen zaizkie irakurtzeko gaitasunari laguntzeko. Bestalde, ikasturtean zehar familiei aukera ematen zaie irakurketa jardueretan parte hartzeko proiektuaren arabera.

**5. Inguruarekiko lotura:** Inguruko jarduera eta ekimenetan parte hartzen dugu eta hainbat erakunde ikastetxean parte hartzera bultzatzen dugu.

**6. Prestakuntza:** Klaustroak parte hartu du irakurketaren inguruko prestakuntza eta berrikuntza proiektuetan.

### **3. HELBURUAK**

#### **IKASTEKO IRAKURRI**

- Irakurketa estrategiak idatziz zehaztea gure artean: hipotesiak egin, ideia nagusiak, antizipazioa...
- Irakasle berriekin aurrez adostutako estrategiak partekatzea.
- Irakasleen artean erabakiak hartzea gela barruan irakurketa jarduerak lantzeko.
- Eskola liburutegia modu eraginkorrean eta sistematizatuan erabiltzea.

#### **IRAKURTZEN IKASI**

- Irakurketa estrategiak idatziz zehaztea gure artean.
- Irakasle berriekin aurrez adostutako estrategiak partekatzea.
- Irakasleak formatzea irakurketaren inguruan: irakurketa faseak ezagutu, testuak irakurri, tertuliak egin, adituak ekarri...
- Adostutako estrategiak eguneroko jardunean txertatzea.

#### **IRAKURZALETASUNA GARATU**

- Ikasturte hasieran ikasgeletako eta liburutegiko liburuak berrikustea eta berritzea.
- Irakurzaletasuna ikasgelan garatzeko irakasleen arteko erabakiak adostea eta ezartzea.
- Irakurketa saioak sistematizatzea.
- Familiei orientabideak ematea irakurzaletasuna seme – alabengan sustatzeko.
- Liburutegiko mailegutza sistematizatzea.

## 4. JARDUERAK

### IKASTEKO IRAKURRI

<b>Irakurketa estrategiak idatziz zehaztea gure artean</b>			
JARDUERAK	DENBORALIZAZIOA ETA ARDURADUNAK	BALIABIDEAK	EBALUAZIOA
Ikasleen ikasteko irakurketa estrategiak behatu eta jaso	Ikasturtean zehar Irakasleak		Estrategiak jaso ditugu
Iturri ezberdinetatik jasotako informazioa erabili	Ikasturtean zehar Irakasleak	Formazio saioak, testuak, webguneak, bideoak, liburuak..	Drive-en jaso ditugu (testuak eta bestelako materiala)
Zenbait saiotan elkartu estrategiak zehazteko eta jarduerak prestatu testu mota desberdinak kontuan hartuta	Hiruhileko bakoitzaren hasieran Irakasleak	Aurretik jasotako materiala	Landuko ditugun estrategiak idatziz jaso ditugu (I.ERANSKINA)
<b>Irakasle berriekin aurrez adostutako estrategiak partekatzea</b>			
Irakasle berriekin saio bat zehaztu eta estrategiak	Ikasturte hasieran (urrian) eta ikasturtean	Drive Baliabide pertsonalak	Estrategiak partekatu ditugu

partekatu	zehar Irakasleak		
<b>Adostutako estrategiak eguneroko jardunean txertatzea eta ezartzea</b>			
Aukeratutako estrategiak egunerokoan aurrera eraman	Egunero Irakasleak	Estrategiak	Estrategiak gelan aplikatu dira
<b>Liburutegia modu eraginkorren eta sistematizatuan erabiltzea</b>			
Irakasleen artean irakurketa jarduerak lantzeko erabakiak hartu eta idatziz jaso	Ikasturte hasieran eta ikasturtean zehar.	Baliabide pertsonalak eta Drive	Irakurketa jarduerak erabaki eta jaso ditugu

## IRAKURTZEN IKASI

JARDUERAK	DENBORALIZAZIOA ETA ARDURADUNAK	BALIABIDEAK	EBALUAZIOA
<b>Irakurketa estrategiak idatziz zehaztea gure artean</b>			
Ikasleen irakurketa estrategiak behatu eta jaso	Ikasturtean zehar Irakasleak		Estrategiak jaso ditugu (II.ERANSKINA)
Iturri ezberdinetatik jasotako informazioa erabili	Ikasturtean zehar Irakasleak	Formazio saioak, testuak, webguneak, bideoak, liburuak..	Drive-en jaso ditugu
Zenbait saiotan elkartu irakurketa faseen araberrako estrategiak zehazteko	Hiruhilabete bakoitzaren hasieran Irakasleak	Aurretik jasotako materiala	Landuko ditugun estrategiak idatziz jaso ditugu (III.ERANSKINA)
<b>Irakasle berriekin aurrez adostutako estrategiak partekatzea</b>			
Irakasle berriekin saio bat zehaztu eta estrategiak partekatu	Ikasturte hasieran (urrian) eta ikasturtean zehar Irakasleak	Drive Baliabide pertsonalak	Estrategiak partekatu ditugu
<b>Irakasleak formatzea irakurketaren inguruan: irakurketa faseak ezagutu, testuak irakurri, tertuliak egin, adituak ekarri ...</b>			



Irakurketari buruzko formazioa jaso	Antolatzen denean		
Irakurketa jarduera, formazioa eta esperientziak irakasleen artean partekatu	Ikasturtean zehar Irakasleak	Testuak, artikulak,..	Hainbat jarduera egin ditugu (tertuliak, hausnarketak,..)
<b>Adostutako estrategiak eguneroko jardunean txertatzea</b>			
Aukeratutako estrategiak egunerokoan aurrera eraman	Egunero Irakasleak	Estrategiak	Estrategiak gelan aplikatu dira

## IRAKURZALETASUNA GARATU

JARDUERAK	DENBORALIZAZIOA ETA ARDURADUNAK	BALIABIDEAK	EBALUAZIOA
<b>Ikasturte hasieran ikasgeletako eta liburutegiko liburuak berrikustea eta berritzea</b>			
Liburutegiko arduradunak liburuak berrikusi eta konpondu	Irailean, liburutegiko arduraduna		Liburutegiko arduradunak liburuak berrikusi eta konpondu ditu
Tutoreak geletako liburuak berrikusi eta konpondu	Irailean eta beharra ikusten denean, tutoreak		Tutoreak gelako liburuak berrikusi eta konpondu ditu
Arduradunak liburu berriak erosi	Irailean eta beharren arabera. Liburutegiko arduraduna	Dirua	Arduradunak behar adina liburu berri erosi ditu
<b>Irakurzaletasuna ikasgelan garatzeko irakasleen arteko erabakiak adostea</b>			
Esklusiba saio batean eskolako irakasleak elkartu, erabakiak hartu, idatziz jaso eta aurrera eraman	Irailean. Eskolako irakasle guztiak		Erabakiak idatziz jaso dira (IV.ERANSKINA)

<b>Irakurketa saioak sistematizatzea</b>			
Hizkuntza desberdinetan irakurketa saioak antolatu irakurle desberdinekin: irakasleak, gurasoak, ikasle ohiak, ikasle nagusiak, aitona-amonak	Hiruhilekoan behin, gutxienez. Irakasleak	Liburuak eta pertsonak.	Irakurketa saioak egin dira (V.ERANSKINA)
Tertulia literarioak egin	Ikasturtean zehar Irakaslea	Irakasleak egokitzen jotzen duen testu edo liburua.	Tertulia literarioak egin dira (VI.ERANSKINA)
Kanpoko idazle, olerkari eta ilustratzaileak eskolara ekarri	Gutxienez, ikasturtean behin eta behar denean. Ikasketa burua.	Idazleak..	Adituak etorri dira
Liburuen altxorra egitasmoan parte hartu	Urtero Liburutegiko arduraduna.	Liburuen altxorra	Ekintzan parte hartu dugu
Idazleak ikastetxean egitasmoan parte hartu	Urtero eskatu Ikasketa burua	Dirua	Proiektuan parte hartzeko aukera izan da
Gelako ordutegietan irakurketa saio bat jarri	Irailean Tutoreak eta ikasketa		Irakurketa saio bat ordutegietan zehaztu da

	burua		
Lehen hezkuntzako ikasleak herriko liburutegira joan liburuak aukeratzera	Hiruhilekoan behin Herriko liburutegiko arduraduna eta tutoreak		Lehen hezkuntzako ikasleek herriko liburuak aukeratu dituzte
<b>Familiei orientabideak ematea irakurzaletasuna seme – alabengan sustatzeko</b>			
Gurasoen bileretan orientabideak eman	Urrian, geletako bilera orokorrean eta bakarkako bileretan. Tutoreak		Orientabideak eman dira (VII.ERANSKINA)
Ekintza berezietan, oharren bidez, irakurketaren orientabide batzuk gogorarazi	Ikasturtean zehar Zuzendaria.		Irakurketa orientabideak emailez bidali dira
Material eta liburu gomendagarrien zerrenda etxeetara bidali eta blogean jarri	Ikasturtean zehar Klaustroa	Material ezberdina	Zerrenda bidali da eta blogean jarri da
<b>Liburutegiko mailegutza sistematizatzea</b>			
Geletako ordutegian mailegutza	Irailean		Ordua ordutegian zehaztu

egiteko ordua zehaztu eta liburuen mailegua	Ikasketa burua		da eta mailegutza egin da
--	----------------	--	---------------------------

## **5. DENBORA EPEAK ETA ARDURADUNAK**

Aurreko puntuko taulan zehaztuta daude jarduera proposamen bakoitzeko arduradunak eta epeak zeintzuk diren. Badira irakurketa planaren ekintzen denbora epeak eta horien jarraipen egiteko arduradunak. Hala ere, zuzendaritzari dagokio ekintza plan honen jarraipena eta berrikusketa egitea.

## 6. EGINDAKO JARDUEREN EBALUAZIOA

<b>IKASTEKO IRAKURRI</b>	1. Helburua: Irakurketa estrategiak idatziz zehaztea gure artean			
	Betetze-maila	Eraginkortasuna	Alderdi positiboak	Hobetzeko proposamenak
Ikasleen ikasteko irakurketa estrategiak behatu eta jaso				
Iturri ezberdinetatik jasotako informazioa erabili				
Zenbait saiotan elkartu estrategiak zehazteko eta jarduerak prestatu testu mota desberdinak kontuan hartuta				
	2. Helburua: Irakasle berriekin aurrez adostutako estrategiak partekatzea			
Irakasle berriekin saio bat zehaztu eta estrategiak partekatu				

	3. Helburua: Adostutako estrategiak eguneroko jardunean txertatzea eta ezartzea			
Aukeratutako estrategiak egunerokoan aurrera eraman				
	4. Helburua: Liburutegia modu eraginkorren eta sistematizatuan erabiltzea			
Irakasleen artean irakurketa jarduerak lantzeko erabakiak hartu eta idatziz jaso				

<b>IRAKURTZEN IKASI</b>	1. Helburua: Irakurketa estrategiak idatziz zehaztea gure artean			
	Betetze-maila	Eraginkortasuna	Alderdi positiboak	Hobetzeko proposamenak
Ikasleen irakurketa estrategiak behatu eta jaso				
Iturri ezberdinetatik jasotako informazioa erabili				
Zenbait saiotan elkartu irakurketa faseen araberako estrategiak zehazteko				



	2. Helburua: Irakasle berriekin aurrez adostutako estrategiak partekatzea			
Irakasle berriekin saio bat zehaztu eta estrategiak partekatu				
	3. Helburua: Irakasleak formatzea irakurketaren inguruan: irakurketa faseak ezagutu, testuak irakurri, tertuliak egin, adituak ekarri ...			
Irakurketari buruzko formazioa jaso				
Irakurketa jarduera, formazioa eta esperientziak irakasleen artean partekatu				
	4. Helburua: Adostutako estrategiak eguneroko jardunean txertatzea			
Aukeratutako estrategiak egunerokoan aurrera eraman				

<b>IRAKURZALETASUNA GARATU</b>	1. Helburua: Ikasturte hasieran ikasgeletako eta liburutegiko liburuak berrikustea eta berritzea			
	Betetze- maila	Eraginkortas una	Alderdi positiboak	Hobetzeko proposamenak
Liburutegiko arduradunak liburuak berrikusi eta konpondu				
Tutoreak geletako liburuak berrikusi eta konpondu				
Arduradunak liburu berriak erosi				
	2. Helburua: Irakurzaletasuna ikasgelan garatzeko irakasleen arteko erabakiak adostea			
Esklusiba saio batean eskolako irakasleak elkartu, erabakiak hartu, idatziz jaso eta aurrera eraman				
	3. Helburua: Irakurketa saioak sistematizatzea			

Hizkuntza desberdinetan irakurketa saioak antolatu irakurle desberdinekin: irakasleak, gurasoak, ikasle ohiak, ikasle nagusiak, aitona- amonak				
Tertulia literarioak egin				
Kanpoko idazle, olerkari eta ilustratzaileak eskolara ekarri				
Liburuen altxorra egitasmoan parte hartu				
Idazleak ikastetxean egitasmoan parte hartu				
Gelako ordutegietan irakurketa saio bat jarri				
Lehen hezkuntzako ikasleak				

herriko liburutegira joan liburuak aukeratzera				
	4. Helburua: Familiei orientabideak ematea irakurzaletasuna seme – alabengan sustatzeko			
Gurasoen bileretan orientabideak eman				
Ekintza berezietan, oharren bidez, irakurketaren orientabide batzuk gogorarazi				
Material eta liburu gomendagarrien zerrenda etxeetara bidali eta blogean jarri				
	5. Helburua: Liburutegiko mailegutza sistematizatzea			
Geletako ordutegian mailegutza egiteko ordua zehaztu eta liburuen mailegua				

## I.ERANSKINA

### IKASTEKO IRAKURRI

- Testua irakurri aurretik **antizipazioak eta hipotesiak egitea**: zer jarriko du? Zeri buruz izango da? Nola dakizu?
- **Ixilean irakurtzea**: modurik naturalena, eraginkorrena
- **Ahotsgoran irakurtzea**: irakasleok asko erabili behar duguna irakurketa ez konbentzionalean daudenekin eta konbentzionalean daudenekin ere bai. Ahotsgoran irakurri behar denean testua aurretik prestatua izan behar da arrakasta lortu dadin.
- **Testu egonkorrak antzematea**: Testu laburrak umeak ikusi eta errekonozitzen dituenak (norberaren izena, gelakoen izenak, baserrien izenak...)
- Testu bat irakurtzean **azpimarratzea**
- Testu bat irakurtzean **notak hartzea**
- Ulertutakoa **labur idatzi**
- **Autozuzenketa**: irakurri ondoren atzera bueltatzea hitzaren edo esaldiaren esanahia ulertzeko
- **Gainbegiratzea**: Irakurketa bisual azkarra eta tartekatua egitea datu jakinak bilatzeko (data bat, izenen bat, osagaien bat errezeta batean...)
- **Zeharkako irakurketa**: irakurketa bisual azkarra egitea testuaren nondik norakoa jakiteko
- Pertsona talde batek testu bera irakurri ondoren ulertutakoa adostea eta ados ez bagaude **testura bueltatzea** (Non bilatu duzu hori testu honetan?)
- Testu bat **berrirakurtzea helburu desberdinekin**, momentu desberdinetan
- **Tipografiaz** ohartzea
- **Bikoteka irakurtzea**: batek irakurri eta besteak jarraitu, esan zer ulertu duen, eztabaidatu, adostu , elkarlana.
- **Memoriaz** irakurtzea: buruz dakiena testuan jarraitzea
- **Bertsioak alderatzea**: testuen arteko berdintasunak eta desberdintasunak bilatu
- **Testuak kontsultatzea, bibliografía bilatzea**: bila zabiltzana konfirmatzea.
- **Inferentziak egitea**: literalki esaten ez dena ere antzematea
- **Komentarioak egitea eta iritzia ematea**
- **Norberaren estrategiak** azaltzea

## II. ERANSKINA

### IRAKURTZEN IKASI

- Testua irakurri aurretik **antizipazioak eta hipotesiak egitea**: zer jarriko du? Zeri buruz izango da? Nola dakizu?
- **Ixilean irakurtzea**: modurik naturalena, eraginkorrena
- **Ahotsgoran irakurtzea**: irakasleok asko erabili behar duguna irakurketa ez konbentzionalen daudenekin eta konbentzionalen daudenekin ere bai. Ahotsgoran irakurri behar denean testua aurretik prestatua izan behar da arrakasta lortu dadin.
- **Testu egonkorrak antzematea**: Testu laburrak umeak ikusi eta errekonozitzen dituenak (norberaren izena, gelakoen izenak, baserrien izenak...)
- **Autozuzenketa**: irakurri ondoren atzera bueltatzea hitzaren edo esaldiaren esanahia ulertzeko
- Testu bat **berrirakurtzea helburu desberdinekin**, momentu desberdinetan
- **Tipografiaz** ohartzea
- **Entzutea**: beste batek irakurritakoa entzutea.
- **Bikoteka irakurtzea**: batek irakurri eta besteak jarraitu, esan zer ulertu duen, eztabaidatu, adostu , elkarlana.
- **Grabatutako** testu batez lagunduta testu bat irakurtzea
- **Memoriaz** irakurtzea: buruz dakiena testuan jarraitzea
- **Norbaiten laguntzaz** irakurtzea
- **Testu egonkorrak** antzematea
- **Kontsultatzea**: bila zabiltzana konfirmatzea.

### III.ERANSKINA

**IRAKURKETAREN FASEAK** ("Los niños piensan sobre la escritura". E.Ferreiro) <http://catedraemiliaferreiro.unr.edu.ar/app.html> helbidean adibideak daude bideo moduan

- Irakurketaren prozesua idazkia eta irudia desberdintzen dutenetik konbenzionaltasunera iristen diren arte doa. Idazketan zein fasetan dauden ulertzen eta ikusten errazagoa da eta laguntzen ere errazagoa da. Irakurketan zailagoa da. Irakurketa prozesuan ematen diren faseak ezagutzeak lagundu gaitzake.
- Hemen adierazten ditugu batzuk.
- **Izenaren hipotesia:** Hizkiak azaltzen direnean gauza konkretu bat esan nahi du.
- **Iruditik gertu dagoen hitza irudiaren isla da:** Hipotesi honek denbora luzean irauten du. Irudia eta testua batera ikusten da. Irudia ez badute identifikatzen ezin dute esan zer jartzen duen. Irudia aldatzen bada, testu horrek beste irudi baterako balioko du. (ELEFANTE hitza elefante baten irudi azpian jartzen badugu ELEFANTE jartzen du, jirafa baten azpian jartzen badugu JIRAFa, irudirik ez badago ez du ezer esan nahi.)
- **Testua eta irudia bereizten du:** "Hau Txanogorritxo da". "Hemen Txanogorritxo jartzen du".
- **Irudia desberdina bada, hitz barruko hizkiek ere desberdinak izan beharko dute.** " Elefante horrela idazten bada, jirafa desberdina izan behar du".
- Testua ikusita konturatzen da ez dela posible (hasierako grafia, grafia kopurua...)
- Testu unitate bat baino gehiago daudenean:
  - IRUDI 1-TESTU 1: Hitzak tokiz ezin dira aldatu
  - IRUDI ASKO- TESTU ASKO: (Testuaren ezaugarri kuantitatiboak kontuan izanda)  
Testua: "Los animales están en el río" (pato, mariposa, pes-ca-do)
  - IRUDI 1-TESTU ASKO Testua: "El mango está maduro" (mango, mango, mango, mango) edo "El conejo come lechuga" jartzen duen tokian (el-co-ne-jo).

## IV.ERANSKINA

- Testua irakurri aurretik **antizipazioak eta hipotesiak egitea**: zer jarriko du? Zer buruz izango da? Nola dakizu?
- **Ixilean irakurtzea**: modurik naturalena, eraginkorrena
- **Ahotsgoran irakurtzea**: irakasleok asko erabili behar duguna irakurketa ez konbentzionalean daudenekin eta konbentzionalean daudenekin ere bai. Ahotsgoran irakurri behar denean testua aurretik prestatua izan behar da arrakasta lortu dadin.
- **Autozuzenketa**: irakurri ondoren atzera bueltatzea hitzaren edo esaldiaren esanahia ulertzeko
- **Zeharkako irakurketa**: irakurketa bisual azkarra egitea testuaren nondik norakoa jakiteko
- Pertsona talde batek testu bera irakurri ondoren ulertutakoa adostea eta ados ez bagaude **testura bueltatzea** (Non bilatu duzu hori testu honetan?)
- Testu bat **berrirakurtzea helburu desberdinekin**, momentu desberdinetan
- **Entzutea**: beste batek irakurritakoa entzutea.
- **Bikoteka irakurtzea**: batek irakurri eta besteak jarraitu, esan zer ulertu duen, eztabaidatu, adostu , elkarlana.
- **Memoriaz** irakurtzea: buruz dakiena testuan jarraitzea



## V.ERANSKINA

### **IRAKURKETA TUTORIZATUAK**

#### **HELBURUA:**

- Literaturaz gozatzea
- Ahots gorako irakurketa ondo prestatzea
- Eredu ona entzutea
- Tutore-entzule arteko harremana sendotzea

#### **METODOLOGIA:**

Irakasle taldeak tutore irakurle-entzule bikoteak antolatzen ditu. Tutore irakurleari ze entzule tokatu zaion esaten zaio eta berarentzako egokia izan daitekeen liburu/ipuin bat aukeratu behar du. Denbora utzi behar da eskolan eta etxean ipuin hau ondo prestatu dezan eta ahots gorako irakurketa arrakastatsua izan dadin. Saio tutorizatuaren egunean irakurleak entzulearen bila joan eta txoko bat aukeratuko dute ipuina irakurtzeko. Irakurketa garaian entzuleak entzun eta irudiak ikusiko ditu eta irakurri ondoren solasean arituko dira nahi badute eta ipuina esku artean ibiltzeko aukera izango dute.

## **VI.ERANSKINA**

### **TERTULIA LITERARIOAK**

#### **HELBURUA:**

- Literaturaz gozatzea
- Partaide guztien artean testuaren esanahia eraikitzea
- Argudiatzen ikastea

#### **METODOLOGIA:**

Solasaldia baino lehen, parte hartzen dutenek aurrez zehaztutako kapitulua edo orrialde kopurua irakurtzen dute. Irakurleek atentzioa emane dota gogoeta sorrarazi dieten paragrafoak, atalak edo esaldiak aukeratzen dituzte eta markatu egiten dituzte post-itak erabiliz edo azpimarratuz.

Saioan, ikasleek, hitz egindako txanda eskatuta, ozenki irakurtzen dute aukeratutako atala eta zergatik aukeratu duten azaltzen dute. Besteek, irakurritakoaren inguruan argudiatu dezaketeedo kontrako iritzia eman.

Solasaldiaren moderatzaileak, tutorea gehienetan, hitz egiteko txandak arautzen ditu eta parte hartzera animatzen ditu ikasleak. Etxean egiten da aurrez adostutako atalaren edo kapituluaren banakako irakurketa. Hala ere, irakurtzeko zailtasunak dituen ikaslerik badago eskola orduetan ere prestatuko da irakurketa.

## VII.ERANSKINA

### **FAMILIEI EMATEKO ORIENTABIDEAK**

#### **Zer egin dezaket seme-alabek irakur dezaten?**

- Lagundu, ez behartu
- Beraiei ahots goran asko irakurri
- Beraiekin irakurri
- Irakurritako liburuei buruz hitz egin
- Herriko liburutegiko bazkide egin eta bertara joateko ohitura hartu
- Liburuak aukeratzeko askatasuna eman: libururik ez debekatu
- Liburuak partekatu, liburuak eskaini, interneten informazioa berarekin bilatu...
- Askotariko informazio-iturriak erabiltzeko aukera eman: etxean, liburutegian,...
- Beraiekin joan liburu dendetara, liburu azoketara, erakusketetara...
- Irakurtzeko leku lasaia eta egokia prestatu
- Egitekoak antolatzen lagundu: denbora, liburuak...
- Adi egon eta zalantzak argitzen lagundu